

## 0. Sarrera

Sintesiaren eginkizuna da gai edo materia baten inguruan sakabanatuta dauden elementuak biltzea, antolatzea eta harremanetan jartzea. Lehenengo eginkizuna, gure kasuan, euskal artearen eta kulturaren inguruan jazotako ekarpen artistiko adierazgarrienak zerrendatzean legoke. Saiakera honek, ordea, haratago eraman nahi gaitu eta, kartografia baten pare, artearen eta euskal nortasunaren arteko loturak arakatu nahi ditu.

Identitateari eman zaion begirunea ezaugarri bereizgarria da gure testuinguruan. Euskal aferaren erakargarritasuna dela eta, ugariak dira nortasun kulturalaren gainean ekoitzi diren ekarpen artistikoak, izan hura berreskuratzeko, errelato sinboliko komun bat eraikitze edota hura desegituratzeko prozesuan sortutakoak. Hipnotismo horrek, hein batean, estetika bereizgarrietan korapilatu du euskal sena, bai iraganaldian oinarritutako identitate bati begira, baita arte-eremutik eratorri den tradizioari dagokionez ere.

Horrela, bereizgarriak diren eta interesekotzat jo diren lanetan erreparatuta, idatzi honek azken mendeko ekarpen artistikoen begirada soil bat eskaintzea du xede. Dударik gabe irudikapen bat da, posizio, ikuspuntu eta ezagutza jakin batetik eraikitako izkribua, euskal testuingurua eta batik bat kultur nortasuna inplikatzan duten imajinak hartu, harremanetan jarri, gatazkara eraman eta iruditeria hau bestelako eraikuntza-prozesuetatik landu dutenei kasu eman diena. Azken hamarkadetako artisten proposamenak begiztatzen dira horretarako, bai nortasuna esentzializatzeraz jo dutenak, eta baita modu batera edo bestera ideia hauekin jokatu duten artisten «egiteak» ere. Haien haritik, arte-eremuak bereak dituen ahalmenetan, hots, askotariko prozedura materiko eta kontzeptualen ikusmiraren baitan, arteak nortasunaren izaera behatzeko, birpentsatzeko eta eraldatzen jarraitzeko eskaintzen dituen aukerak hausnartzera gonbidatu nahi duen ekarpena da.

Horrela, prozesuan jaso eta elkarri lotutako letra, hitz, esaldi, paragrafo eta kontzeptuek alderdi desberdinak saretzen dituztela esan daiteke. Horiei jarraituta gertatu diren lotura, korapilo eta ebakien arteko bidaia da orrialdeek jasotzen dutena, hala nola euskal identitatea jorratzeko izan diren eta egun ere ditugun moduetan zehar eramaten duen ibilbidea. Ehundura baten antzera, identitatearen ideari lotutako koiuntura artistiko batzuk aurkezten dira, *geurearen* azpiegituretara gerturatzeko formak aurkezten dituztenak edo, bestela esanda, izaera ematen diguten irudi eta kontzeptuen esanahietan erreparatzeko ahalegina egin dutenak.

Alabaina, sintesitik abiatuta, dena izan daiteke kartografia honen parte edota ehundutako begirada honen lagin. Hain da irazki zabala, eta hainbeste irekitzen dira bideak, ezen irakurle adina artista, irudi, jestu eta desbideratze uzta baitaitezke sortutako traman.

Pentsa mapa batean, idazten, osatzen eta aldatzen doan morfologia batean. Hartutako norabideak, egindako geldiuneak eta zeharkatutako bideak deskribatzen dituen sare batean. Deleuze eta Guattarik (2000) errizomarekin definitu zuten antzera, deszentralizatzen doan prozesu bat bezala uler daiteke lan hau ere, identitatearen eta artearen orientazioa lokeren arabera aztertzen baina lerro propioetan barreiatzeko aukera eman nahi duen saiakera bat bezala. Errizomaren kontzeptuak askotariko noranzkoak hartzeko askatasuna eskaintzen du, jakina denez, hierarkiarik gabeko egitura horizontala delako, kimuak sortu ahala edozein norabidetan hedatzeko, ideiekin lotzeko, eta ezagutzaren antolaketa bestelako prozesuetan erdiesteko eredua.

Kartografiatutako lerroek, bada, identitateari eusten dioten ekarpenen eta horiek tentsionatzeko gai direnen arteko ehundura osatzen dute. Esplorazio-ariketa baten gisara, konexioak intuizioz eratu dira, eta elkartzen joan diren piezek bidezidorrak proposatzen dituzte identitatea errepresentatu, landu eta bihurritu duten artelanekin. Alabaina, «eztabaiden eta kartografiaren gauzarik ederrena datu, oztopo, ahots eta aurkikuntza berrietara irekita egotea da, izan ere, dena sar daiteke haietan» (Corsín-Jimenez, 2018). Edozer gehitu edo kendu daiteke gurearen mapatzeetan ere; oinarritzkoak diren kultur osagaietatik perspektiba, gorpuzte eta haragiztatze ezegonkorrenetaraino.

Izan ere, edonora eraman gaitzakeen eta bestelako kultur emaitzak abiarazi nahi dituen zelaigunea da meta-nortasunarena. *Meta-* horri eutsiz, eta erreferente bakoitzetik hainbat hedadura ireki daitezkeen bezala, irudikatutako lan, kontzeptu, uste eta abar horiek guztiak malgutzeko aukera ere eman nahi du testu honek. Arte-praktika eta -prozedurak hausnartzearen jira-biran, ideien arteko kontrasteak lehian jartzea da *haratago* batera eraman nahi gaituen bultzada.

Era berean, eragin kultural geroz eta globalagoek abiadura bizian zirkulatzen duten mundu batean, gizartearen aldaketari eta behar sozial eta kulturaleri erantzun nahi dien idatzia da. Alde batetik, euskal identitatearen auziari lotutako estrategia eraikitzaile eta heterogeneoen bilaketarako konpromisoa, eta, bestetik, geure ondasun kulturala eta haren transmisioa eztabaidatu, ahaldundu eta hedatzekoa.

Kultur nortasunaren azpiegituran barneratzen den prozesua da beraz, ekarpen artistikoak aztertu, artikulatu eta mugiarazi nahi izan dituen bilbea. Landa-koaderno bidelagun, denbora eta gaitegi desberdinen arteko elkarriketak alderdi plastiko eta estetiko batetik ere landu dira, irudien eta testuaren arteko elkarriketak plazara ditzakeen perspektiben bila. Azaleratze-prozesu honetan gurutzatzen doazen kontzeptu, ekarpen artistiko eta esanahien ekoizpenen arteko muntadurak ageri dira bitakora moduko honetan. Iruditeria sinbolikoaren nozioa, hots, kultur erreferentzia-

sistemaren egitura eta ikuspegia, etengabe egiten eta aldatzen ari den errealitate baten moduan azaldu nahi izan da landa-koadernoaren bitartez.

Zinez, gorpuzkera honek transitoan dagoen euskal identitate baten eta hura eraikitzen duten erreferentziak eraberritzeko ditugun zailtasunen ertzak azaleratu nahi ditu; imajinario zaharkitu eta eraberrituetan zehar ditugun erronkak arakatu, tentsioetan kokatu eta ikurrak jokoan jartzera gonbidatu nahi du. Horregatik, identitatearekin harremanetan dauden irudi, testu, gai, obra eta ekarpenen arabera, analogiaz analogia eratu den trama da, baita, nortasunaren gorpuzkera jolas berrietara eramatearekin batera, arteak berrikuntza kulturalaren erronkan duen indarra aintzat hartu duena ere.